EIBARKO UDALA
www.eibar.net

# [e]kultura

AZAROA 2008 *NOVIEMBRE*

72



antzerkia / *teatro*

## *La aventuras de Huckleberry Finn*

## *Kezka 50urte*

## *Los Secretos*

## AZAROA 2008 NOVIEMBRE


eguna *día* — orr. *pag.*

**31** INDALECIO OJANGUREN XXI. ARGAZKI LEHIAKETA
*XXI CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN*
erakusketa ***exposición*** . . . . . . . . . . 4

**1** COR AMICS DE LA UNIO
musika ***música*** . . . . . . . . . . 10

**2** VDOCHNOVENIJE
musika ***música*** . . . . . . . . . . 10

**3** *CURSO DE INTERNET BÁSICO*
KZGunea . . . . . . . . . . 21
IT-TXARTELA
KZGunea . . . . . . . . . . 21
FORO DE PLANTAS: PLANTAS DE OTOÑO
Ikasten . . . . . . . . . . 21

**4** *EL ÚLTIMO MAGO*
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 14
*CURSO DE PINTURA ESPAÑOLA: GRECO, VELÁZQUEZ Y GOYA*
Ikasten . . . . . . . . . . 21

**6** *JUNTOS*
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 13
*FIRMA ELECTRÓNICA*
KZGunea . . . . . . . . . . 21
*LA ARQUITECTURA GÓTICA*
*LAS ARTES FIGURATIVAS: ESCULTURA Y PINTURA GÓTICA*
Ikasten . . . . . . . . . . 21

**7** JUAN ANTONIO JIMÉNEZ
erakusketa ***exposción*** . . . . . . . . . . 6
OHEAN
antzerkia ***teatro*** . . . . . . . . . . 7
*FESTA DO MAGOSTO*
jaiak ***fiestas*** . . . . . . . . . . 16
XIII. SAN ANDRES BERTSO PAPER LEHIAKETA
lehiaketa ***concurso*** . . . . . . . . . . 20
IT-TXARTELA
KZGunea . . . . . . . . . . 21

**8** RAKU ZERAMIKA ERAKUSTALDIA
erakusketa ***exposición*** . . . . . . . . . . 6
*FESTA DO MAGOSTO*
jaiak ***fiestas*** . . . . . . . . . . 16
*LAS AVENTURAS DE HUCKLEBERRY FINN*
antzerkia ***teatro*** . . . . . . . . . . 24

**11** *COBARDES*
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 14
IT-TXARTELA
KZGunea . . . . . . . . . . 21

**13** *INTERMISSION*
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 13
NODOA ETA EIBAR - *EL NODO Y EIBAR*
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 15
IT-TXARTELA
KZGunea . . . . . . . . . . 21
KALEETAN KANTUZ
Ikasten . . . . . . . . . . 21

**15** KEZKA 50 URTE
musika ***música*** . . . . . . . . . . 9
KALEETAN KANTUZ
Ikasten . . . . . . . . . . 21
ZAPATUKO IPUINA
literatura ***literatura*** . . . . . . . . . . 23

**16** SANANDRESAK 2008
jaiak ***fiestas*** . . . . . . . . . . 17-19
SANANDRESETAKO GIMNASTIKA ERRITMIKOAREN X. TXAPELKETA
kirola ***deporte*** . . . . . . . . . . 23

**17** IX. EIBARKO "ASIER ERRASTI" LABURMETRAIA JAIALDIA. JAVIER AGUIRRESAROBE saria
irudia ***imagen*** . . . . . . . . . . 12

















16




































29



eguna / día — orr. / pag.

**18**
*BANCA ELECTRÓNICA*
**KZGunea** . . . . . 21
*EXPERIMENTANDO LO PARANORMAL*
**hitzaldia** ***conferencia*** . . . . . 8

**20**
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . . 21
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . . 21

**21**
*VISITA A LA IGLESIA STA. MARÍA LA REAL DE DEBA*
**Ikasten** . . . . . 21
ANDRÉS EGUIDAZU
**erakusketa** ***exposición*** . . . . . 6

**22**
OÑATI ABESBATZA - SOSTOA ABESBATZA
**musika** ***música*** . . . . . 10
*BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA
**musika** ***música*** . . . . . 10
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

**23**
BLANDIBLU
**literatura** ***literatura*** . . . . . 23
EXFIBAR 2008
**erakusketa** ***exposición*** . . . . . 5
*BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA
**musika** ***música*** . . . . . 10
*BANDA DE TXISTULARIS* USARTZA TXISTULARI BANDA
**musika** ***música*** . . . . . 10
XXXI. AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA
**lehiaketa** ***concurso*** . . . . . 20
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

**24**
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

**25**
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . . 21
*ANTES QUE EL DIABLO SEPA QUE HAS MUERTO*
**irudia** ***imagen*** . . . . . 14
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19
*25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES*
**kontzertrazioa** ***concentración*** . . . . . 23

**27**
*LAS INVASIONES BÁRBARAS*
**irudia** ***imagen*** . . . . . 13

**28**
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . . 21
*LOS SECRETOS*
**musika** ***música*** . . . . . 11
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

**29**
*CORREO ELECTRÓNICO*
**KZGunea** . . . . . 21
*XII CONCIERTO DE ÓRGANO DE SALÓN. HELMHOLTZ 2008*
**musika** ***música*** . . . . . 10
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

**30**
SONIC SOUNDS
**literatura** ***literatura*** . . . . . 23
SANANDRESAK 2008
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 17-19

## ETA.... / Y....

UMEAK ESKOLARA
**dirulaguntzak** ***ayudas*** . . . . . 20
DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2008
*AYUDAS A ESTUDIANTES*
**dirulaguntzak** ***ayudas*** . . . . . 20

# INDALECIO OJANGUREN XXI. ARGAZKI LEHIAKETA
# *XXI CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN*

**urriak 31 *octubre* - azaroak 16 *noviembre*   PORTALEA**

Aurtengo lehiaketan saritutako lanak eta beste hainbat argazki ikusgai
*Exposición de las obras ganadoras y una selección de las presentadas en esta edición*

**OHOREZKO SARIA ARGAZKI BILDUMA ONENARI**
***Premio de Honor a la Mejor Colección***

**REFUGIADOS - Vicente Cervera**, Valencia.

**INDALEZIO OJANGUREN SARIAK**
***Premios Indalecio Ojanguren***

**EDERTASUNA, 1 - J.R. Llavori**, Zumaia

**TAN - Javier Fernández**, Berango

**SINTRA - Benito Cantero**, Bergara

**POBLADO KATAMGUDA - J. M. Alba**, Malaga

**EUSKAL HERRI MAILAKO SARIAK**
***Premios Vascos***

**EL PINAR - José Agustín Gurruchaga**, Bergara

**KHOTON - Iosu Garai**, Legazpia

**CLAROSCURO - Virginia Araquistain**, Eibar

**HERRI MAILAKO SARIAK**
***Premios Locales***

**TIME UNDERGROUND - Idoia Bustindui**

**ZUHA MAIA, 2 - Bakarne Elejalde**

**TERREMOTO, 2 - Naroa Isasmendi**



***Idoia Bustindui***

**Idoia Bustindui**. Argazkilaria

'Time Underground' du izena Indalecio Ojanguren argazki lehiaketara aurkeztu duen argazki bildumak. Eibartarren artean lehenengo saria lortu du 24 urteko gazteak. Odolean ere zaletasunak eramaten direla dioenak, oraingo honetan badu arrazoia. Indalecio Ojangurenen birbiloba da Idoia Bustindui.

**Zergatik 'Time Underground'?**
New Yorken ateratako hiru argazki dira. Hirurak metroan ateratakoak. Metroan, denbora beste modu batera pasatzen dela iruditzen zait. Beste pertzepzio batekin igarotzen da denbora. Denborak lur azpian beste forma bat hartzen du.

**Estilo zehatzen bat daukazu?**
Ez, kamara hartu eta umorearen arabera hau edo bestea ateratzen dut. Momentu horretan atentzioa deitzen didan hori harrapatzen saiatzen naiz.

# EXFIBAR 2008

**azaroak 23 - 29 *noviembre* PORTALEA**

***Exposición filatélica* XXXIX Seilu erakusketa**

*Ámbito nacional* / Estatu mailakoa

**EUSKOPHIL 2008 Euskal Herriko VII. Filatelia Txapelketa**
***VII Campeonato Filatélico de Euskal Herria***

*Los aficionados a la filatelia tienen una oportunidad excelente para disfrutar de casi 20 colecciones de sellos de la mano de la Asociación Filatélica Arrate. Las colecciones presentadas por los participantes del VII Campeonato Filatélico de Euskadi ocuparán unas 120 vitrinas que expondrán sellos de todo el mundo.*
*La exposición se inaugurará el día 23 de noviembre y será entonces cuando se conozca el fallo del jurado.*
*Por otro lado, este año, la Asociación Filatélica Arrate ha querido homenajear a Mercedes Careaga. Como es costumbre en todas la últimasediciones, han preparado un sello especial que recordará a Mercedes Careaga y a toda una vida dedicada a la ayuda social. Dicho sello se pondrá en venta en la misma exposición y podrá ser matasellado por Correos los días 23 y 24.*




Mercedes Careaga eibartarra omenduko du Arrate Filatelia elkarteak. Zigilu berezia kaleratu du eta erakusketan egongo da eskuragai.
Mercedes Careaga eibarren jaio zen 1908. urtean eta berak egindako lan guztia eskertzeko egingo diote omenaldia. Emakume aurreratua izan zen. "Antolaketarako ahalmen handia, kemena eta lan egiteko gogoa", nabarmendu dute antolatzaileek Mercedes Careagaren inguruan aritzean. Emakumeak eta behartsuenak laguntzeko egin zuen lan gogor. Politikagintzan aritu zen urteetan, EAJko Emakume Abertzale Batzan. Bere lan ibilbidean egindako guztiak aipatzeko tarte luzea beharko litzateke baina nagusienak aipa daitezke hemen: Goi Argi elkartearen sorrera, Eibarko Ongintza patronatua eta Cayetano Careaga tailer babestuak (adimen urritasuna duten gazteei lana emateko lantegiak; gaur egun *Gureak* lantegien barruan daude) izan ziren gazte atzeratuei lana emateko. Bere ibilbide horri errepasoa emateko garaia dela iritzi dio Arrate Filatelia elkarteak.

***Horario especial* / Ordutegi berezia**

| | | |
|---|---|---|
| *lunes - viernes* | 18:00 - 20:00 | astelehena - ostirala |
| *sábado, domingo* | 12:00 - 14:00 , 18:00 - 20:00 | larunbata, igandea |

Antolatzailea / *Organiza*: Asociación Filatélica Arrate

## RAKU ZERAMIKA ERAKUSTALDIA

Ekialdeko zeramika teknika ezagutzeko aukera
Udal Zeramika Eskolaren eskutik

**azaroak 8 *noviembre*** 10:00 - 14:00
**Eulogio Garate kalea** (Portalearen atzeko aldean)



Te infusioaren errituaren inguruan sortutako zeramika teknika da Raku. Japonian, XVI. mendetik gaur egun arte mantendu da eta, urtean behin, Eibarren ikusteko aukera izaten da, Zeramika eskolako ikasle eta irakasleen eskutik. Aurten ere, Eulogio Garate plazan teknikaren nondik norakoak erakutsiko dituzte. Tenperatura aldaketa handiak dira teknikaren zutabe; sua, ura eta zerrautsa elementuak erabiliko dituzte besteak beste. Labe berezi bat behar izaten da. Tenperatura 1.000 gradutara arte igotzen da. Piezak bertan sartu eta ondoren pintza handiekin aterako dira. Zerrautsetan edo belar lehorretan sartuko dira jarraian. Horrek kolpera bajatuko du tenperatura eta piezak oso bizkor hoztuko dira. Gero, uretan sartuko dituzte murrizketa finkatzeko. Pieza bereziak lortzen dira, hotz-beroen frutu.

*Rakú es una técnica oriental creada alrededor de la ceremonia del té. En Japón se practica desde el Siglo XVI y los alumnos de la escuela de Cerámica hacen una demostración cada año en la plaza Eulogio Garate. Este año también van a ofrecer la oportunidad de observar dicha técnica.*
*El Rakú parte de piezas bizcochadas que se introducen en el horno a 1.000 grados de temperatura para luego introducirlas seguidamente en un recipiente lleno de serrín u hojas secas. El serrín ayuda a bajar la temperatura de las piezas bruscamente. Luego, se introduce la pieza en el agua para fijar la reducción.*
*Se consiguen piezas curiosas, fruto de los grandes y rápidos cambios de temperatura.*

## TOPALEKU

Arrate Kultur Elkartea

### JUAN ANTONIO JIMÉNEZ

**azaroak 7 - 16 *noviembre***

### ANDRÉS EGUIDAZU

**azaroak 21 - 30 *noviembre***

# OHEAN

## MASKARADA

**azaroak 7 noviembre** 20:30 7 € **teatro COLISEO antzokia**

*Ohean es un espectáculo, claro, directo, evidentemente descriptivo de una situación tan concreta como la relación de sexo entre dos jóvenes totalmente desconocidos que "ligan", "se enrollan" y acaban ,(empiezan), en la cama de un hotel.*

*El telón se alza en oscuro con las exclamaciones contundentes y espectaculares de una pareja al borde del orgasmo. Se hace la luz y la cosa es lo que parece. Los protagonistas, en elegante y artístico desnudo, consuman el acto e inician una conversación en la que, a golpe de cigarro, y puesta y retirada de exiguas prendas interiores, terminan por desnudar sus mentes mucho más que sus cuerpos, al tiempo que establecen una corriente de atracción que el final deja en el aire.*



Egokitzapena eta itzulpena
*Adaptación y traducción*
**Unai Elorriaga**

Antzezleak / *Actores*
**Aitor Beltrán**
**Matxalen de Pedro**

Eszenografia / *Escenografía*
**Gorka Mínguez**

Jantziak / *Vestuario*
**Silvano Fernández**

Musika / *Música*
**Rafa Rueda**

Zuzendaritza / *Dirección*
**Carlos Panera**

Maskarada konpainia bizkaitarrak ibilbide luzea eta emankorra egin du orain artean. Prozesu luze eta sendoen ondorioz arrakasta asko lortu dituzte. "Ohean" antzezlana ere halakoa da; erabaki irmo baten ondorioa. Hala ikusi du argia antzezlan berriak.

'Ohean' ikuskizun argia, zuzena eta deskriptiboa da. Bikote gazte baten harreman sexualak kontatzen ditu; bi ezezagunek nola ligatzen duten, nola jolasten duten elkarrekin eta nola bukatzen duten (edo zerbait hasten duten) ostatu bateko ohean. Oihala jasotzen dutenean iluntasuna ageri da eta hotsak entzuten dira. Itxuraz, orgasmora heltzera doala dirudien bikotearen hotsak. Argia pizten denean usteak egi bihurtuko dira. Protagonistak biluzik, dotore, agertuko dira. Larrua jotzen bukatu eta elkarrizketa bat hasiko dute, zigarroa esku artean dutela. Poliki-poliki elkarrizketak bikotearen barrenak biluztuko ditu; adimena gorputzak baino biluziago gelditu arte. Bestelako erakarpen korronte bat sortu arte.

Antzezlana bukatu orduko ordea sexua agertuko da berriro. Dotore oraingoan ere. Protagonisten gaitasun fisikoa ikusteko aukera izango du ikusleak; buruz behera elkarrizketa beroa eta luzea izaten dutela ohartzerakoan. Interpretazio on bat oinarri dutela betiere

Hasiera ikusgarriek dituzten arriskuak kontutan hartuta ere, antzezlan horrek, aurrera egin ahala, oinarri sendoa eratuko du eta aktoreen biluztasuna bigarren maila batean geldituko da.

Eszenografia, orokorrean, oso ongi erabilita dago. Hoteleko logela bat irudikatzen dute; ohea logelaren erdi-erdian dago, ohea baita ardatza.

Ikusleria orokorrari gustatzeko moduko elementuak eta kalitatea ditu "Ohean" ikuskizunak. Bertako aktoreek sor ditzazketen itxaropenetatik haratago heltzen den antzezlana da "Ohean".

# EXPERIMENTANDO LO PARANORMAL

## LUIS ALFONSO GÁMEZ

**azaroak 18 *noviembre*** 19:30 **Portalea**



*Experimentar lo paranormal. Ese es el objetivo de Luis Alfonso Gámez. Este periodista y profesor lleva varios años preparando charlas y talleres de experimentación. "**Vamos a intentar hacer algunos experimentos con lo paranormal; porque lo importante es experimentar. No es lo mismo que te cuenten las cosas y creerlas a ciegas o vivirlas y reflexionar sobre ellas"**, explica Gámez y apunta algunos temas y preguntas que tratarán en el taller de experimentación. La veracidad de las cartas astrales; la telepatía; ¿Es real la publicidad subliminal?; ¿Puede pasar algo delante nuestro y que no lo veamos?; ¿Existen mensajes satánicos en canciones famosísimas del rock & roll?. Experimentar con el espiritismo; ¿Por qué hoy en día se puede contactar con nuestros seres queridos en un plató de televisión cuando hasta ahora se necesitaba total oscuridad?*

*Las cartas astrales ocuparán un lugar especial, ya que pide colaboración directa con personas que se vayan a acercar al taller. **"Me gustaría comprobar en vivo y en directo la veracidad de las cartas astrales. Para ello necesito cinco o seis personas que me faciliten los siguientes datos y yo pueda encargar esas cartas astrales: nombre, fecha, lugar y hora de nacimiento"**, comentá Gámez.*

## Gertakari paranormalak esperimentatuz

Gertakari paranormalak bizitzeko, sentitzeko eta horren inguruan hausnartzeko aukera eskainiko du Luis Alfonso Gámez kazetari eta irakasleak. Esperimentazio lantegi bat prestatu du norberaren bizipenen bitartez gertaera paranormalen ingurukoak ikasteko balioko duena. **"Gutun astralekin hasiko gara; telepatia saiakerak egingo ditugu; iragarki subliminalak aztertuko ditugu; abestietan egon daitezkeen mezu satanikoak... denborak eta partaideek ahalbidetzen badute esperimentazio mordoska bat egiteko prestatu dut lantegia"**, azaldu du Gamezek.

*Si alguien estuviera interesado en facilitar sus datos para hacer la carta astral se puede dirigir a Portalea*

Bost lagunen datuak behar ditu gutun astralak prestatzeko: izena eta jaiotze lekua, data eta ordua. Nahi duenak Portalera dei dezake.

**943708 435 - cultura.ei@eibar.net**

# KEZKA 50 URTE

**azaroak 15 *noviembre*** 19:30 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



*Kezka dantza taldea celebra su 50 aniversario. El Coliseo se llenará con grupos de danza de referencia en este momento en el ámbito del baile vasco: Argia de Donostia, Arkaitz de Añorga, Duguna de Pamplona, Andra Mari de Galdakao. Acompañando a todos ellos y celebrando su aniversario estará el grupo de baile del Club Deportivo que bailará entre otras danzas la Arrateko Ezpata-dantza y Koko-dantza.*



*El Ayuntamiento de Eibar ha concedido a Kezka una de las réplicas de la escultura "Txopitea eta Pakea" en reconocimiento a su trayectoria*

## 'Saria' bete dantza

'Saria' hitzak otarra esan nahi du Eibarren eta, Coliseoa otar bihurtuko du Kezka dantza taldeak datorren hilaren 15ean. Dantzaz beteko du otarra.
Aurten 50 urte bete ditu Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldeak. Hori ospatzeko Euskal Herriko dantza taldeen ordezkari esanguratsuenak bilduko ditu Coliseoan: Donostiako Argia, Galdakaoko Andra Mari, Iruñeko Duguna, Añorgako Arkaitz eta Elgoibarko Haritz. "Azken urteotako Kezka dantza taldearen dantza ibilbidean funtsezkoak izan diren eta gure laguntzat ditugun dantzari eta dantza taldeak gonbidatu ditugu jaialdira", adierazi dute Kezka dantza taldeko kideek.
Euskal dantzak asko eta anitzak dira. Lekuan lekuko dantzek bere berezitasun propioak izaten dituzte. Horregatik Coliseora hurbilduko den talde bakoitzak bere marka eta karakterea erakutsiko du. «Egungo dantza talde onenetakoak dira horiek eta bakoitzak eskainiko dituen dantzetan, gainontzeko guztientzat eredu eta erabateko erreferentea dira", gehitu dute.
Etxeko taldeak ere hartuko du parte jaialdian, 50 urte ez baitira hala nola betetzen. Besteak beste, Arrateko Ezpata-dantza, kostaldeko dantzak eta koko-moko dantzak dantzatuko dituzte.
Urte oparoa izan du aurtengoa Kezkak: Aratusteetako koko-dantzak kaleratu dituzte lehenengoz aurten; Axeri-boda ikuskizunean parte hartzen hasi dira eta hala jarraitzen dute; York-eko Sword Spectacular jaialdian ere izan dira; Utahkoen bisita izan dute; eta herriko hamaika ekintzetan parte hartu dute.
Beste halako 50 bete ditzatela.




# XVI MUSIKALDIA



## CORS AMICS DE LA UNIO

(Catalunya)

**azaroak 1 *noviembre*** 20:30 2 €

***teatro* COLISEO antzokia**



## VDOCHNOVENIJE

(Rusia)

**azaroak 2 *noviembre*** 20:30 2 €

***teatro* COLISEO antzokia**

Antolatzaileak / Organizan: **Eibarko Udala, Hezkuntza Esparrua, Tolosako Ekinbide Etxea**

# SANTA CECILIA

**Banda de Música CIELITO Musika Banda**

kalejira pasacalle

**azaroak 22 *noviembre*** 24:00

kontzertua concierto

**azaroak 23 *noviembre*** 12:30 ***teatro* COLISEO antzokia**

**Banda de Txistularis USARTZA Txistulari Banda**

kalejira pasacalle

**azaroak 23 *noviembre*** 11:00

# OÑATI ABESBATZA - SOSTOA ABESBATZA

**azaroak 21 *noviembre*** 20:00 2 €

***teatro* COLISEO antzokia**

# PARROKIAKO ABESBATZA - SOSTOA ABESBATZA
# *CORO PARROQUIAL - CORAL SOSTOA*

**azaroak 30 *noviembre*** 12:00 **San Andres Parrokia**

Meza. Hasiera emango diote Eibarko La Salleko Anaien berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldiari.

*Misa. Inicio de la celebración del Cincuentenario de los Hermanos de la Salle en Eibar.*



# XII. ARETO ORGANOAREN KONTZERTUA. HELMHOLTZ 2008
# *XII CONCIERTO DE ÓRGANO DE SALÓN. HELMHOLTZ 2008*

**azaroak 29 *noviembre*** 19:30 2 € ***teatro* COLISEO antzokia**

Antolatzailea / *Organiza*: AMAÑA KULTUR ARETOA

# LOS SECRETOS

**azaroak 28 *noviembre*** 23:00 20 € - 24 € ***frontón* ASTELENA frontoia**

*Los Secretos dejan de ser secretos si se presentan delante de miles de personas. En cambio, Los Secretos siempre han tenido la capacidad de seguir siendo lo que son en contra de toda corriente. Ahora, después de 30 años de trayectoria y con un nuevo disco recopilatorio están otra vez de gira y con más éxito que nunca; y harán una de las paradas en Eibar. El Astelena también recibirá a Los Secretos dentro de los actos organizados por el Club Lambretta Eibar.*
*Tos primero y Los Secretos más tarde. Los hermanos Urquijo fueron los creadores y eje fundamental de este grupo que se ha convertido en leyenda. En estos 30 años han grabado una veintena de discos y sus canciones han pasado a ser pequeños himnos de la vida popera.*
*Este 30 aniversario lo están celebrando con un disco recopilatorio que reúne las mejores canciones e imágenes en dos Cds y dos Dvds. "Siempre hemos buscado nuestro espacio y por eso ha sido tan duro nuestro camino. Por eso somos lo que somos", han comentado en más de una entrevista los miembros del grupo. Eibar gozará del privilegio de escucharlos en directo.*






**Sekretuak Astelenan**
Los Secretos musika taldeak arrakasta garaiak bizi ditu berriro. 30 urte bete dituzte eta hura ospatzen ari dira bira batean. Eibarrera ere helduko dira, Astelena frontoira, Club Lambretta Eibarren eskutik.
Urquijo anaien inguruan sortu zen Los Secretos taldea, 1978. urtean, Madrileko mugimendu berritzailearen barruan. Pop klasikoari bere onena ateratzen jakin diote. Maitasun, poz eta tristuren inguruko abestiek milioika entzule mugitzeko gai izan ziren eta dira. "Ez gara sekula korrontearekin bat joan. Gure espazio berezia sortu izan dugu beti eta, ez diegu modei kasurik egin. Horregatik izan da hain gogorra bidea. Horregatik gara garena", aipatu izan dute taldekideek behin eta berriro.

Antolatzailea / *Organiza* : Club Lambretta Eibar

# IX. EIBARKO "ASIER ERRASTI" LABURMETRAIA JAIALDIA
# JAVIER AGUIRRESAROBE saria
# *IX FESTIVAL DE CORTOMETRAJES DE EIBAR "ASIER ERRASTI"*
# *Premio JAVIER AGUIRRESAROBE*

**azaroak 17 – 22 *noviembre***

**proiekzioak** **teatro COLISEO antzokia** ***proyecciones***

**sari banaketa** **teatro COLISEO antzokia** ***entrega de premios***




*Esta novena edición del Festival de Cortometrajes de Eibar "Asier Errasti" ha recibido trabajos de 159 participantes.*
*Además de la creciente participación, la calidad de los trabajos es también cada vez mayor. Así opina Rosa Ares, organizadora del festival:* ***"Es increible qué claras tienen las ideas algunos directores. La calidad de algunos trabajos es impresionante. Tendremos la oportunidad de ver cortos que tienen el nivel de largos"****.*
*La muerte sigue siendo uno de los mayores protagonistas de estos trabajos. "****Ver comedia es muy difícil"****.*

## Gero eta film hobeak

Bederatzigarren aldia da Asier Errasti laburmetraia jaialdia egingo dela. Aurten 159 partaidek baino gehiagoren lanak ikusteko aukera egongo da. Gainera, aurreko urteetan ez bezala, euskal egileen partaidetzak gora egin du oraingoan: **"Normalean, Madriletik eta Bartzelonatik etortzen dira lanik gehienak. Aurten, ordea, bertakoen lanak ere izango ditugu: Zarautzeko, Elgoibarko, Zumaiako eta Aretxabaletako egileen lanak"**, azaldu du Rosa Aresek, jaialdiko antolatzaileak.

Urtetik urtera lanen kalitateak gora egiten du eta aurten ere igarri da hori: **"Izugarria da zuzendari batzuek zein argi dituzten ideiak. Lan egiteko modu txukuna eta etorkizuna dutela ere igartzen zaie batzuei"**. Luzemetraien kalitate bera duten laburmetraiak ere badirela gehitu du.

Gaiei dagokienez gai ilunek leku nabarmena hartu dute: **"Heriotzaren presentzia beti da handia halako lanetan. Baina, bereziki aurten, handiagoa dela esango nuke. Egia esan, mundu honetan, oso zaila da komedia bat ikustea"**, gehitu du.

Asier Errasti laburmetraia jaialdia aukera paregabea da zine mundua gustatzen zaion ikuslearentzat, iritzi dio Rosa Aresek. **"Estatu osoko lanak Eibarren ikusteko aukera izango da"**.

# AMAÑA KULTUR ARETOA

**Umeendako zinea** ***Cine infantil***

**azaroak 2 - 9 - 16 - 13 - 30 *noviembre***

**Amaña Kultur Aretoa** 17:00 2,50 €

# CINE CLUB EGO IBAR ZINE KLUBA

**Hezkuntza Esparrua** 17:30 - 21:00 2 € ***Complejo Educativo***




**azaroak 6 *noviembre***

## JUNTOS

Suecia-Dinamarca-Italia 2000 106 m.
Zuzendaritza/Dirección: **Lukas Moodysson**
Antzezleak/Reparto: **Lisa Lindgren, Michael Nyqvist, Emma Samuelsson**

70eko hamarkadaren erdialdean kokatzen da gertaera. Elisabeth etxekoandrea da eta bere gizonarekin bizimodu aspergarria bizi duela ohartu da. Maletak egin eta anaia Gorän-en etxera joango da seme-alabak hartuta. Aldaketa ordea ez da berak uste zuena izango. Ohituta ez dagoen bizimodu batera moldatuko beharko du. Hala, lagun hippyek osatutako komuna bat izango da bere bizitoki berria. Sexu askatasuna praktikatzen dute; baratzean aritzen dira; eta politikaz hitz egiten dute.

*A mediados de los años setenta, Elisabeth, un ama de casa aburrida de la vida que lleva con su marido, decide hacer las maletas y trasladarse con sus hijos a la casa de su hermano Göran. Pero la vida de éste es bastante diferente a la que ella estaba acostumbrada ya que habita en una especie de caótica comuna con unos amigos hippies que practican el sexo libre, cultivan la tierra y discuten de política.*




**azaroak 13 *noviembre***

## INTERMISSION

Irlanda-Reino Unido 2003 106 m.
Zuzendaritza/Dirección: **John Crowley**
Antzezleak/Reparto: **Colin Farrell, Shirley Henderson, Kelly MacDonald**

Johnek ez du segurtasun handirik bere buruarengan. Sentimenduak adieraztea izugarri kostatzen zaio. Bere buruarekin borrokan dabilela Deirdre neska-lagunarekin harremana haustea erabakiko du. Helburua Deirdre proban jartzea izango da baina, bere plana ez da ondo irtengo. Deirdrek lur joko du eta, bera bakarrik eta triste geldituko da. Haustura horrek, ordea, ez du beraiengan soilik eragingo. Domino efektuak egiten duen bezala inguruko guztiak ukituko ditu gertaerak.

*John, un chico muy inseguro e incapaz de expresar sus sentimientos, decide romper con Deirdre y "ponerla a prueba", pero su plan sale mal. Ella está destrozada; él se queda solo y triste. Mediante una serie de coincidencias, su ruptura desencadena un efecto dominó que afecta a todos los que les rodean.*




**azaroak 27 *noviembre***

## LAS INVASIONES BÁRBARAS

Canadá-Francia 2003 99 m.
Zuzendaritza/Dirección: **Denys Arcand**
Antzezleak/Reparto: **Rémy Girard, Stéphane Rousseau, Marie-Josée Croze**

Barbarie garai batean sartuko dela uste du Remyk. Dante eta Montaigne-kin batera sortu zen mendebaldeko kultura desagertzear dagoela iruditzen zaio. Eskuizkribuak gorde beharra berebizikoa iruditu zaio; antzina, Erdi Aroan egiten zen bezalaxe. Horregatik, lan hori aginduko dio Natalieri, bere liburutegiaren oinordekoa izango denari.

*Rémy está convencido de que entramos en una época de barbarie. Cree que la cultura occidental, la que nació con Dante y Montaigne, está a punto de desaparecer. Le parece muy importante conservar los manuscritos, como en la Edad Media. Y ése será el papel de Natalie, la heredera de su biblioteca.*

# CINE CLUB EIBAR ZINE KLUBA

***teatro* COLISEO antzokia** 21:30 3,50 €




**azaroak 4 *noviembre***

## EL ÚLTIMO GRAN MAGO

Australia-Reino Unido 2007 97 m.
Zuzendaritza/Dirección: **Gillian Armstrong**
Antzezleak/Reparto: **Catherine Zeta-Jones, Guy Pearce, Timothy Spall**

1926. urtea da. Harry Houdini 'eskapista' ospetsua da eta Edinburgora heldu da. Bertako ikusleek harrera beroa egin diote. Hala ere, Houdinik bere ama hil osteko dolua ari da bizitzen oraindik. Hain da sakona sentimendua parapsikologiarekiko obsesio moduko bat sortzen ari zaiola. Amak esandako azken hitzak jakin nahi ditu. Hitz horiek esaten dituen '*medium*'-ari 10.000 dolar ordaintzeko prest dago Houdini.

*Es 1926. En su gira mundial Harry Houdini, el famoso escapista, llega a Edimburgo entre los clamores del público. Houdini sigue llorando la reciente muerte de su madre, hasta el punto de que ha desarrollado una obsesión con la parapsicología. Está decidido a dar 10.000$ al médium que consiga pronunciar las últimas palabras que dijo su madre en su lecho de muerte.*




**azaroak 11 *noviembre***

## COBARDES

España 2008 89 m.
Zuzendaritza/Dirección: **José Corbacho, Juan Cruz**
Antzezleak/Reparto: **Lluís Homar, Elvira Mínguez, Paz Padilla**

Gaby 14 urteko mutikoa da eta eskolara joateko beldur da. Akaso, beldurraren arrazoia Guille da, Gabyren gelakidea, bere aitari huts egiterik nahi ez dion mutikoa. Baina Gabyren eta Guilleren gurasoak ere beldur dira. Gabyren aita, Joaquin, bere lana galtzeko beldur da. Gabyren ama, Merche, bere familia amiltzearen beldur da.

*Gaby, es un chaval de catorce años que tiene miedo a ir al colegio. Tal vez su miedo sea a causa de Guille, un compañero de clase, que por su parte tiene miedo a defraudar a su padre. Pero los padres de Gaby y Guille también tienen miedo.*




**azaroak 25 *noviembre***

## ANTES QUE EL DIABLO SEPA QUE HAS MUERTO

USA 2007 117 m.
Zuzendaritza/Dirección: **Sidney Lumet**
Antzezleak/Reparto: **Philip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Albert Finney**

Charles eta Nanette Hansonek seme-alabak era tradizionalean hezitu zituzten. Andy seme nagusiak bere emazte Gina maite du eta soldata eder bat dauka kontabilitate enpresa batean. Hank, seme gazteenak, bere alaba miresten du eta haren ikasketak ordaindu nahi ditu hiriko ikastetxerik garestienetako batean.

*Charles y Nanette Hanson criaron a sus hijos tradicionalmente. Andy, el mayor, sigue enamorado de su bella esposa, Gina, y gana muy buen sueldo en una empresa de contabilidad. Hank, el pequeño, ama a su hija y está intentando pagarle los estudios en uno de los mejores colegios privados de la ciudad.*

# NODOA ETA EIBAR
# *EL NODO Y EIBAR*

***azaroak 13 noviembre*** 20:00 2 € ***teatro*** **COLISEO antzokia - Ego Ibarra**

## Eibar Euskadiko Filmategian eta Espainiako Filmategian
## *Eibar en la Filmoteca Vasca y en la Filmoteca Española*

Aurkezlea:
Pello Aldazabal, Euskal Filmategiaren zuzendaria



Espaniako Filmategia / *Filmoteca Española*



Espaniako Filmategia / *Filmoteca Española*



Espaniako Filmategia / *Filmoteca Española*



Espaniako Filmategia / *Filmoteca Española*

# GAZTAINERRE

**azaroak 10 *noviembre***



- 19:00. **Trikipoteoa Ipurua inguruan.**
- 21:00. **Herri afaria Armeria Eskolan.** Ostean, **erromeria trikitilariekin.**

Gaztainak jateko eta ohiturak mantentzeko garaia da azaroa. Gaztainerre Eguna ospatzeko egun polita antolatu du AEK euskaltegiak. Urtero legez, azaroaren 10ean, Armeria eskolan, afari herrikoia izango da; 120 lagunentzat egongo da lekua. Norberak bere afaria eramango du eta gaztainak izango dira postrerako. Dena dela, afaria aurretik beroketak egin nahi dituenak 19:00etan du hitzordua, Paloma tabernan (AEK parean). Bertan hasi eta Armeria eskolara bitartean, Agirrebeña soinu-joleek gidatutako 'triki-poteoa' prestatu baitute antolatzaileek. Animatu eta on egin!

Antolatzailea: Eibarko AEK Eibarko Udalaren laguntzarekin.

# FESTA DO MAGOSTO

**azaroak 8 - 9 *noviembre*** **URKIZU**



**azaroak 8 *noviembre***

- *18:30-21:30.* ***Venta de castañas asadas y vino ribeiro amenizado por el grupo de gaitas de la Casa de Galicia***.

**azaroak 9 *noviembre***

- *12:00-13:00.* ***Reparto de castañas gratis a los niños***.
- *12:00-15:00.* ***Venta de castañas asadas y vino ribeiro amenizado por el grupo de gaitas de la Casa de Galicia***.

*Organiza: Casa Cultural de Galicia, con la colaboración del Ayuntamiento de Eibar.*

# SANANDRESAK 2008



*Aitor Guisasola se llevó el primer premio local en las feria de San Andres del pasado año. Este año volverá a participar.* ***"Preparar una feria como está supone mucho trabajo"****. Si el tiempo acompaña esperan tener un bonito día.*

**Aitor Guisasola.** Baserritarra

## *"Halako azoka batean parte hartzeak lana erruz eskatzen du"*



San Andres azokaren txanda heldu da; baserritarrek haien produktuak erakusteko erakusleihoa bihurtu da San Andres. Barazkiak, frutak, ogia, gazta, eztia, pastelak eta eskulanak izango dira ikusgai besteak beste.

Iaz aurkeztutako eibartarren artean Aitor Guisasolak eraman zuen lehen saria. Aurten ere aurkezteko asmoa duela esan du. **"Iazko antzera prestatuko dut postua. Barazkiak eramango ditut. Halako azoka baten parte hartzeak lana erruz eskatzen du. Bi egun oso, gutxienez, lan hori prestatzeko"**, azaldu du. Goizean goiz jaiki, postua prestatu eta ahal dena saldu.

Erosle mota sailkatzerako orduan ez du dudarik Aitorrek: **"Azokara hurbiltzen dena, normalean, ez da plazara joaten den hori. Gazteak izaten dira gainera gehienetan. Produktu berdinak eramaten ditugu plazara eta azokara baina, erosleak ez dira berak. Plazara etortzen denak San Andres azokan gutiziaren bat erosiko du baina ez eguneroko produktua"**, azaldu du. Ez dio zentzu askorik topatzen baina hala gertatzen dela dio.

Aitor ez da bakarrik egongo. Familia osoa izango du ondoan laguntzen. **"Eta eguraldiak laguntzen badu askoz hobe. Salmentak asko aldatzen baitira eguraldi ona izan edo euria izan"**.

# SANANDRESAK 2008

**azaroak 16 - 22 - 23 - 24 - 25 - 28 - 29 - 30 *noviembre***




1. Saria / 1er *premio*: Maribel Belategui

**azaroak 16 noviembre**

- 12:00. **Eskolarteko bakailao lehiaketa**
  **UNTZAGA PLAZA**
  Antolatzailea: Cofradía del Bacalao.

**azaroak 20 noviembre**

- 19:30. **Hitzaldi dastaketa:**
  **PERROTXIKOAK**
  Antolatzailea: Arrate Kultur Elkartea.

**azaroak 22 noviembre**

- 09:15 - 22:00. **"V. TXISTORRAREN EGUNA":**
  **Kilometro bat txistor prestatu eta salgai ipiniko da. Egunean zehar kirol erakustaldiak, musika, jokoak...**
  **UNTZAGA PLAZA**
  Antolatzailea: Club Ciclista Eibarrés.

**azaroak 23 noviembre**

**Bakailao kofradiaren XV. Kapitulua**

- 11:30. **Ongietorria kofradiei, ondoren desfilea PORTALEraino**.
- 12:30. **Bertan Ohorezko Kofradeen Zin egitea eta GORUNTZ abesbatzaren saioa**.
- 12:00. **Makailau txapelketa**
  **UNTZAGA PLAZA**

**azaroak 27 noviembre**

**Eibarko tabernarien arteko V. Pintxo txapelketa, "San Andres Saria"**
Antolatzailea: Arrate Kultur Elkartea.

***azaroak 16 noviembre***

- *12:00.**Concurso Interescolar de Bacalao***
  ***UNTZAGA PLAZA***
  *Organiza: Cofradía del Bacalao.*

***azaroak 20 noviembre***

- *19:30.**Conferencia degustación:***
  ***PERROTXIKOAK***
  *Organiza: Arrate Kultur Elkartea.*

***azaroak 22 noviembre***

- *09:15 - 22:00.* ***"V. TXISTORRAREN EGUNA":***
  ***Preparación y venta de un Kilómetro. de txistorra. Durante todo el día, actuaciones musicales, deportivas, etc...***
  ***UNTZAGA PLAZA***
  *Organiza: Club Ciclista Eibarrés.*

***azaroak 23 noviembre***

***XV Capítulo de La Cofradia del Bacalao***

- *11:30.* ***Recibimiento a las Cofradías y desfile hasta PORTALEA***.
- *12:30.* ***Juramento de los Cofrades de Honor y actuación del coro GORUNTZ***.
- *12:00.* ***Concurso de Bacalao***
  ***UNTZAGA PLAZA***

***azaroak 27 noviembre***

***IV Concurso de pintxos de Eibar, "Premio San Andrés"***
*Organiza: Arrate Kultur Elkartea.*



Accesit:
Ernesto Echave



11-14 urte / *11-14 años:*
Mikel Urionabarrenechea



10 urte arte / *hasta 10 años:*
Aitor Casaña

**azaroak 28  noviembre**

- 22:30. **"SAN ANDRES GAZTE BERTSO JAIALDIA 2008"**
  **Sei bertsolari gaztek jardungo dute.**
  **PORTALEA  Sarrera: 3 €.**
  **Jaialdia hasi aurretik, XIV. San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleek sariak jaso eta euren lanak abestuko dituzte**
  Antolatzailea: ...eta Kitto!.

**azaroak 29  noviembre**

- 18:00. **HERRI KIROLAK: VI. San Andres lehiaketa.**
  **UNTZAGA PLAZA**
- 19:00 - 21:00. **DJ XAIBOR**
  **UNTZAGA PLAZA**
- 23:00 - 01:00. **Dantzaldia: GOZATEGI**
  **UNTZAGA PLAZA**

**azaroak 30  noviembre**
**SAN ANDRES EGUNA**

- 09:30. **XXX. SAN ANDRES NEKAZAL AZOKAren epai-mahaiaren lanen hasiera  eta ganadu erakusketa**
- 11:00. **Usartza Txistulari Bandaren kalejira**.
- 12:00. **Plazara Dantzara Erromeria Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Kezka Dantza Taldearen eskutik**
  **UNTZAGA PLAZA**
- 12:45. **Narbaiza eta Azpilaga bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien emanaldia**.
- 13:00. **San Andres azoka, pintxo txapelketa eta kartelen sari banaketa**.

***azaroak 28  noviembre***

- *22:30.* ***"SAN ANDRES GAZTE BERTSO JAIALDIA 2008"***
  ***Participarán seis bertsolaris jóvenes***
  ***PORTALEA  Entrada: 3 €.***
  ***Antes del festival se entregarán los premios San Andres Bertso Paper Lehiaketa***
  *Antolatzailea: ...eta Kitto!.*

***azaroak 29  noviembre***

- *18:00.* ***DEPORTE RURAL: VI Premio San Andres.***
  ***UNTZAGA PLAZA***
- *19:00 - 21:00.* ***DJ XAIBOR***
  ***UNTZAGA PLAZA***
- *23:00 - 01:00.* ***Verbena: GOZATEGI***
  ***UNTZAGA PLAZA***

***azaroak 30  noviembre***
***SAN ANDRES EGUNA***

- *09:30.* ***Comienzo de los trabajos del Jurado de la XXX FERIA AGRÍCOLA DE SAN ANDRÉS y Exposición de Ganado****.*
- *11.00.* ***Pasacalle con la Banda de Txistularis Usartza****.*
- *12:00.* ***Plazara Dantzara a cargo de Kezka Dantza Taldea, con los trikitilaris Jainaga eta Narbaiza***
  ***UNTZAGA PLAZA***
- *12:45.* ***Actuación de los bertsolaris Narbaiza eta Azpilaga y los trikitilaris Jainaga eta Narbaiza****.*
- *13:00.* ***Reparto de los premios de carteles, del concurso de pintxos y de la Feria de San Andrés****.*

## LEHIAKETAK *CONCURSOS*

### XIII. SAN ANDRES BERTSO PAPER LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea: **azaroak 7**

Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartea - Tel.: 943 200 918 elkartea@etakitto.com

Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea.



### XXXI. AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA
### *XXXI CONCURSO PINTURA AL AIRE LIBRE*

**azaroak 23 *noviembre***

**Izenematea / *Inscripciones*:** 9:00 - 11:00 **PORTALEA**

Antolatzailea / *Organiza*: Asociación Artística de Eibar

## KIROLAK *DEPORTES*

### *X TORNEO DE SAN ANDRÉS DE GIMNASIA RÍTMICA*
### SANANDRESETAKO GIMNASTIKA ERRITMIKOAREN X. TXAPELKETA

**azaroak 16 *noviembre*** 16:30 ***Polideportivo* Ipurua Kiroldegia**




*Nivel nacional con presencia internacional*

Nazio mailakoa. Nazioarteko gimnastak ere bertan izango dira.

## KONTZENTRAZIOA *CONCENTRACIÓN*

### "AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"
### *"25 de NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES"*

**azaroak 25 *noviembre*** 13:00 **Untzaga Plaza**

**interneteko oinarrizko ikastaroa**
Interneten hasteko ikastaroa. Web orrietan nabigatzea, informazioa bilatzea, posta elektronikoa...
***curso de internet básico***
*Introducción al manejo del ordenador, navegación por páginas web, búsqueda de información, correo electrónico...*
- **azaroak 3 - 14 *noviembre*** . . . . . . . 9:00-11:00
- **azaroak 3 - 14 *noviembre*** . . . . . . 18:00-20:00

seminarios
**sinadura elektronikoa**
Ikastaro honek, sinadura elektronikoa zer den erakusten digu eta ONA edo Herritar txartelak nola erabiltzen diren ikusten da.
***firma electrónica***
*Este curso nos da a conocer qué provecho le podemos sacar a las tarjetas Ciudadano y ONA de Izenpe.*
- **azaroak 6 *noviembre*** . . . . . . . . . . 16:00-18:00
- **azaroak 21 *noviembre*** . . . . . . . . . 11:00-13:00
- **azaroak 26 *noviembre*** . . . . . . . . . 11:00-13:00

**banka elektronikoa**
Gure banketxearekin kontsultak edo transferentziak nola eginten dira Internetez ikusiko dugu.
***banca electrónica***
*Cómo realizar consultas, transferencias, cómo operar con las tarjetas,... a través de Internet.*
- **azaroak 17 - 18 *noviembre*** . . . . . 16:00-18:00

**posta elektronikoa**
Outlook Express nola erabiltzen den ikasi.
***correo electrónico***
*Como utilizar Outlook Express.*
- **azaroak 28 *noviembre*** . . . . . . . . . 16:00-18:00

***it_txartela***
informazioaren Teknologien Erabileraren Egiaztagiria
IT-Txarelari buruzko informazio guztia www1.eeuskadi.net orrialdean aurkituko duzu.
*certificado de usuario de Tecnologías de la información. Toda la información sobre las pruebas en www1.eeuskadi.net*

Azaroko azterketa frogen datak
*Fechas de las pruebas de este mes*
- **azaroak 7-11-18-24 *noviembre*** . . . . . . 11:00
- **azaroak 3-13-27 *noviembre*** . . . . . . . . . 16:00
- **azaroak 20 *noviembre*** . . . . . . . . . . . . . . . 18:00

**DEBABARRENEKO ESPERIENTZIA ESKOLA**
**ESCUELA DE LA EXPERIENCIA DE DEBABARRENA**

**FORO DE PLANTAS: "PLANTAS DE OTOÑO"**
**azaroak 3 *noviembre*** 16:00 - 18:00
**PORTALEA**

**CURSO de "PINTURA ESPAÑOLA: Greco, Velazquez y Goya"**
**azaroak 4-11-18-25 *noviembre*** 10:00 - 11:30
**PORTALEA (Auditorio Musika Eskola)**
Ponente: **Ricardo ALDAMA** (Previa inscripción)

**LA ARQUITECTURA GOTICA**
**azaroak 6 *noviembre*** 10:00 - 12:00
**EPA (Isasi)**
Ponente: **Cristina AYUSO**

**LAS ARTES FIGURATIVAS: ESCULTURA Y PINTURA GOTICA**
**azaroak 6 *noviembre*** 10:00 - 12:00
**EPA (Isasi)**
Ponente: **Cristina AYUSO**

**Visita a la Iglesia Sta. María La Real de Deba de estilo gótico, guiada por Cristina Ayuso. (Apuntarse).**
**azaroak 20 *noviembre***

**KALEETAN KANTUZ Ensayos**
**azaroak 13 - 27 *noviembre*** 19:30
**Locales Parroquiales S. Andrés**

**KALEETAN KANTUZ Salida**
**azaroak 15 *noviembre*** 19:30
**Untzaga**

Informazioa **ikasteneibar@yahoo.es** Información

## ZAPATUKO IPUINA

ingelesez - *en inglés*

**azaroak 15 noviembre** 18:00 **Umeen liburutegia - *Biblioteca infantil***




**THE GREAT RACE: THE STORYOF THE CHINESE ZODIAC**

**MY GRANNY WENT TO MARKET:**
**A ROUND-THE-WORLD COUNTING RHYME**

**THIS IS OUR HOUSE**

**Rebecca Place**

## MAD ABOUT SCIENCE

Zientzia tailerrak ingelesez / *Talleres de ciencia en inglés*

**Helburuak:**

- Zientzia hurbildu 10-11 urteko umeen artean era ludiko eta interaktibo batean, alderdi zientifikoa ahaztu barik.
- Zientziako liburuak umeen artean zabaldu eta ezagutarazi
- Umeak ondo pasatuz eta zientziarekin jolastuz, ezagupen zientifikoak indartzea bilatzen dugu.
- Ingelesez izango direnez, hizkuntza honen erabilera ere indartu ohiko klaseetatik kanpo era ludiko bat erabiliz.

***Objetivos:***

- *Acercar la ciencia a los niños y niñas de 10-11 años de una forma lúdica e interactiva, sin olvidar el aspecto científico.*
- *Dar a conocer el fondo de libros de ciencia que hay en la biblioteca.*
- *Fortalecer los conocimientos acerca de la ciencia que tienen los niños y niñas mientras lo pasan bien jugando con experimentos científicos.*
- *Al ser los talleres en inglés, se pretende reforzar la utilización de esa lengua fuera de las clases habituales y de una forma lúdica.*



### BLANDIBLU

**azaroak 22 *noviembre*** 17:00
**Umeen liburutegia - *Biblioteca infantil***

During this session, the children will prepare their own Silly Putty (Blandiblu). They will be really surprised with the properties of this polymer!!!

Saio honetan umeek bere blandiblua egiteko aukera izando dute. Polimero honen ezaugarriek aho zabalk utziko dituzte.

*En esta sesión los/las niños/as tendrán ocasión de preparar su propio Blandiblú. Quedarán boquiabiertos/as con las propiedades de este sorprendente polímero.*



### SONIC SOUNDS

**azaroak 29 *noviembre*** 17:00
**Umeen liburutegia - Biblioteca infantil**

By some different demonstrations, the loud wave properties and their transmission will be illustrated. Using the "sound machine", they will be able to change their voices in order to sound us Darth Vader… They are more than 150 variations.

Erakustaldi batzuen bidez soinu uhinen ezaugarriak eta uhin horiek nola transmititzen diren erakutsiko da. "Soinu-makina" erabiliz, umeek euren ahotsa nola aldatzen den ikusi ahal izando dute.

*Por medio de un conjunto de demostraciones se ilustrarán las propiedades y la transmisión de ondas sonoras a través de diferentes medios. Usando "la máquina de sonido", los niños serán capaces de cambiar sus voces.*

**[e] kulturak bere ekintzen berri eman nahi duten herriko talde eta elkarte guztiei ateak zabaltzen dizkie.**

**Zure etxean jaso nahi baduzu PORTALEAn edo PEGORAn eskatu, eta posta elektronikoz jaso nahi baduzu idatzi cultura.ei@eibar.net helbidera.**

**[e] kultura *abre sus páginas a todos los grupos y asociaciones locales que quieran informar de sus actividades.***

***Si quieres recibir la guía en tu domicilio, solicítalo en PORTALEA o en PEGORA y si prefieres recibirla por correo electrónico, escríbenos a cultura.ei@eibar.net***

## EIBARKO UDALA www.eibar.net *AYUNTAMIENTO DE EIBAR*

**PEGORA** - Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - pegora@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - osteguna | 9:00 - 13:30 17:00 - 19:30 | *lunes - jueves* |
| ostirala | 9:00 - 14:00 | *viernes* |

## PORTALEA Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 cultura.ei@eibar.net

**azaroak 30 *noviembre*, itxita / *cerrado***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 8:00 - 22:00 | *lunes - viernes* |
| larunbata | 10:00 - 14:00 / 16:00 - 21:00 | *sábado* |
| igande eta jai-egunak | 10:00 - 13:30 / 16:00 - 21:00 | *domingos y festivos* |

**ERAKUSKETA ARETOA** ***SALA DE EXPOSICIONES***

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - igandea | 18:30 - 20:30 | *martes - domingo* |

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA** tel. 943 708 437 biblioteca.ei@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |
| larunbat, igande eta jai-egunak | 10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *sábados, domingos y festivos* |

**ARMAGINTZAREN MUSEOA** tel.943 708446 museo.ei@eibar.net ***MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA***

www.armia-eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - igandea | 16:00 - 20:00 | *martes - domingo* |

Bisitak gidatuak taldeentzat (aurretiazko erreserbak) - *Visitas guiadas para grupos (previa reserva)*

## teatro COLISEO antzokia Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 cultura.ei@eibar.net

**sarrerak** leihatila - asteartetan, 20:00etatik 21:30era, eta emanaldi egunetan ordu bat lehenago.
***entradas*** *taquilla - los martes, de 20:00 a 21:30, y una hora antes los días de función.*
SERVIKUTXA TELEKUTXA 943 001 200
www.kutxa.net

## ERROTA GAZTELEKUA Karmen, 3 tel. 943 820 105

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - osteguna | 18:00 - 20:00 | *lunes - jueves* |
| ostirala | 17:00 - 21:30 | *viernes* |
| larunbata | 16:30 - 21:30 | *sábado* |
| igande eta jai-egunak | 16:30 - 20:30 | *domingos y festivos* |

## ARRATE KULTUR ELKARTEA TOPALEKU Zuloagatarren, 3 tel. 943 202 299 / 626 984 472

www.geocities.com/arratekultu

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 19:00 - 21:00 | *lunes - viernes* |
| larunbat, igande eta jai-egunak | 12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00 | *sábados, domingos y festivos* |

## HEZKUNTZA ESPARRUA / *COMPLEJO EDUCATIVO* Otaola Hiribidea, 29 tel. 943 208 444

www.eibarres.net

## Kz GUNEA Karmen, 3 tel. 943 120 390

www.kzgunea.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *lunes - viernes* |

## AMAÑA KULTUR ARETOA Pedro Celaya Plaza

argitaritzailea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saila
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale

# LAS AVENTURAS DE HUCKLEBERRY FINN

**ULTRAMARINOS DE LUCAS**

**azaroak 8 *noviembre*** 18:00 4 € ***teatro* COLISEO antzokia**

*Basado en la novela de mismo título de Mark Twain, nuestro espectáculo presenta las peripecias del niño Huckleberry Finn, que escapa de "la civilización", un mundo de convenciones sociales que le oprime. En su fuga, se encuentra con un compañero: el negro Jim, el esclavo, huido de unos amos que lo quieren vender separándolo de su familia. Los dos emprenderán una misma aventura, bajando por el gran rio Misisipi en busca de la libertad.*

*Al mismo tiempo, de la mano de Huck y Jim, sobre el escenario los actores realizamos nuestro viaje particular; reflexionamos sobre la aventura que desde niños también nosotros estamos viviendo, persiguiendo nuestra propia libertad. Un viaje desde nosotros hasta el espectador.*

*Para adaptar la novela a nuestra versión teatral, hemos realizado una dramaturgia selectiva, profundamente respetuosa con el espíritu y los temas de la novela.*

*Ultramarinos de Lucas*

Dramagintza / *Dramaturgia*
**Daniel Moreno**
**Ultramarinos de Lucas**

Antzezleak / *Reparto*
**Luis Orna**
**Juan Monedero**
**Juan López Berzal**

Eszenografia-Atrezzo
*Escenografía-atrezzo*
**Maestro Ropero**

Jantziak / *Vestuario*
**Elena Revuelta**

Argien diseinua
Diseño iluminación
**Carlos Sarrió**

Musika / *Música*
**Racalmuto**

Zuzendaritza laguntzailea eta
*Ayudante de dirección y movimiento escénico*
**María Eugenia de Castilla**

Zuzendaritza / *Dirección*
**Juan López Berzal**

*Público familiar y público infantil a partir de 6 años.*

**www.ultramarinosdelucas.com**



Mark Twain idazlearen eleberrian oinarritutako antzezlana da. 'Zibilizaziotik' ihes egingo duen Huckleberry Finn mutikoaren abenturak kontatzen ditu istorioak. Arau sozialez betetako munduak ito egiten du Huckleberry eta alde egitea erabakiko du. Bidean, lagun berri bat egingo du: Jim beltza. Esklaboa da Jim eta bere jabeek saldu eta familiagandik banatu nahi dute. Horregatik egingo du ihes. Bi mutikoak abentura berean murgilduko dira. Misisipi ibaian behera egingo dute bidaia, askatasunaren bila.

Era berean, aktoreek ere haien bidaia partikularra egingo dute Huck eta Jimen eskutik. Guztiok betidanik nahi izan dugun bidaia horren inguruan hausnartzeko beta emango dute aktoreek. Askatasunaren bila bizitzen dugun bidaia horren inguruan arituko dira. Aktoreengandik hasi eta ikusleenganaino helduko den bidaia aurkezten du obrak. Eleberria egokitzerakoan lan selektiboa, errespetuzkoa eta eleberriaren espirituari eutsi nahi izan diona egin dutela azaldu dute konpainiako kideek.